

Iturri Bila

Joxe Manuel Odriozola

Estado, etnicidad y biculturalismo,
Claudi Esteve Fabregat, Ediciones Pe-
nínsula, 235 orr., Bartzelona, 1984.

Liburu honetako gai-ardatza zuzen eta artez hizkuntz gatazkari atxekirik ez bada-
go ere, arras gauza jakingarriak daude
bertan hizkuntz borrokan diharduen eus-
kaltzalearentzat. Zutabe hirukoitza du oi-
narrizat, izenburuan isladatzen den mo-
duan. Horietako lehena Estatua: hain zu-
zen ere hain funtsezkoa den kategoria
teorikoa hizkuntz eta kultur gatazken non-
dik-norakoak begiz zuzen joko badira. Bi-
garrenik, etnizitatearen izaria: gatazkon
jatorri historikoan datzan gizarte-katego-
ria. Eta azkenik kulturbitasunaren auzia:
aurreko bi elementu horien uztartura eta
loturatik sortutako kultur sistema.

Liburuaren atal nagusiak honakook dira
hurrenez hurren: Etnia, etnicidad y rela-
ciones interétnicas; Subcultura, clase cul-
tural y clase social; Segmentación étnica,
clase social, consciencia étnica y consi-
ciencia de clase; El Estado, la etnicidad y

el biculturalismo; Inmigración, etnicidad y
relaciones interétnicas en Barcelona.

Hizkuntz borrokari hurbilago datorkion
atalean barneratuko gara gu, besteak alde
batera utziz. Horrenbestean, El Estado, la
eticidad y el biculturalismo deritzan gai-
eremua arakatuko dugu gaingiroki.

Lehenik eta behin, kulturbitasunaren
jatorri-arrazoiak azaleratzen dizkigu an-
tropologoak. Eta, esango nuke, batere
zalantzarik gabe, elebitasunaren jatorri
bera duen kulturbitasun hori, ez dela as-
kok sinestarazi nahi digun harako altxor-
ondare zerutierra, menderakuntza garra-
tzen efektua baizik. Ea behingoz ohartzen
garen "bitasun" hauen atzeko aldean da-
goen oinarri historikoan "sustrai politikoa"
duen zergatia dagoela: "En este contexto,
el biculturalismo responde a una situación
histórica de raíz política donde el poder
especifico de cada cultura, para realizar-
se y desarrollarse como sistema nacional
o étnico dentro de una estructura plural
(Estatua), depende de su capacidad para

asimilar individualmente a los miembros de las otras etnias y culturas. Esta capacidad es, sin embargo, una función condicionada por el modo político, económico y militar predominante".

Elebitasuna eta kulturbitasuna Estatu bereberean kokaturik dauden etni-nazioen arteko harremanetatik sortzen badira, hauetako bakoitzaren iraupena eta kementa beraien arteko indar-erlazioetan erabakitzen da. Zeinek zein asimilatuko eta integratuko: horra lege nagusi bakarra. Baina, Estevanek ongi asko dioen bezala, etni-komunitateon integrazio-indarra ez datza berauen garapen kultural eta sinbolikoan, oinarritzat dituzten botere-euskarietan baizik.

Hizkuntzazko eta kulturazko "bitasunaren" iturria, gurean bezalako prozesu historikoetan, Estatu-egitura bat-berean barneraturik dauden herrien arteko ukipenetik jaiotzen dela esan dugu. Baina etni-nazio horien artean denak ote dira "bitasun" zaleak, ala bakan batzuk? Erantzuna zalantzarik gabekoa da: Estatu-agintea bere eskuko duen nazio-etniak ez du ezer jakin nahi izaten "bitasun" horretaz. Besteak bai, mendeko direlako, eta erabat desagertu nahi ez badute, elebitasun eta kulturbitasunaren bidea aukeratzen dutelako, besterik ezean eta hobe beharrez. Ikus dezagun nola mintzo zaigun Bartzelonako irakaslea: "... el poder nunca suele ser bicultural. Sí lo son, en cambio, los grupos étnicos dependientes, los cuales en este caso adoptan en su debilidad la cultura de prestigio, sobre todo en la medida en que la propia carece de decisión sobre sí misma y no se transforma en la dirección del progreso o evolución de la cultura universal más avanzada. Simultáneamente, las minorías dirigentes de los grupos dominados dividen sus opciones, pues mientras unos grupos adoptan los modos de prestigio de la cultura dominan-

te y procuran asumirla, incluida su identidad para compartir vicariamente su poder y, en este caso, se pasan a la cultura dominante, otros grupos mantienen costumbres y tradiciones -y su lenguaje- y las continúan, convirtiéndose, de este modo, en un poder replegado pero que reproduce su propio sistema cultural".

Asko hitz egin da eta asko idatzi da euskal gizarte-klase nagusiek egindako kultura-aukerari buruz. Esan izan da, baina ez dakigu baieztape hau erabat egiazkoa den, Kataluniako burgesiaren hizkuntz eta kultur aukera bertako izaerari jarraituz egina izan dela. Hemengoa behintzat ez da horrelakoa izan, eta horren lekukoak nahi adina daude: izatekotan ere, burgesiaren baitan, honen mailarik apal eta herrikoienak atxeki zitzaizkion bere garaian euskal kulturaren ildoari. Hori ere, egia esan, ñabardura anitzez josia dago: orohar, izan ere, klase-gidari arrotzuen bidetik jo baitute zer esanik eta zer eginik zuten klase-maila guztiek.

Asimilazio prozesua aski aurreratua egon arren, Hego Euskal Herrian bederen, oraindik badago asimilazio horri buru egiteko kemenik. Ikastolen mugimendua izan da fenomeno horren ispilurik bikaina, dakigunez. Eta hortik dator hitzetik hortzera erabili ohi den "euskal auzia": Estatua eta Euskal Herriaren arteko gatazkaren zioa alegia. Estevaren hitzez: "una dicotomía irresoluta en el sentido de su permanente contradicción".

Zer gertatzen da ordea gurea bezalako herri baten atarramenduarekin herri honek bere kultura sortzeko eta garatzeko behar adinako bitartekorik ez duenean? Jakin dezagun Estevaren eskutik: "De esta manera, aunque de la totalidad demográfica de un grupo étnico sometido al control político de un Estado se desprendan algunos grupos y asuman éstos la cultura

histórica de este poder, sin embargo, basta con que otra parte demográficamente significativa del grupo cultural sometido al poder del Estado mantenga su conciencia étnica y su continuidad cultural para que siempre esté latente una dicotomía irresoluta en el sentido de su permanente contradicción, como es la tendencia a la centripetación, a replegarse en sí misma, junto con la tendencia a la centrifugación o salir de sí misma. Si en el primer caso el grupo se repliega con su cultura y se vuelve compacto consigo mismo, y si además carece de poder político sobre su propio desarrollo cultural, entonces es probable que sufra una crisis de desarrollo cultural y que parte de éste le llegue desde la acción del Estado, creando así éste dos capas de cultura, la de la etnia replegada y la de la etnia que en el mismo Estado desarrolla su continuidad expansiva".

Gure arteko hainbatentzat hitz-giltzarrria den ideia aipatzen digu antropologoak: konpaktazioaren auzia hain zuzen. Hizkuntz-komunitate zapalduko hiztun-agenteen arteko lotura, edota beraien arteko baitaratze hutsa, dirudienez, ez da inolako irtenbidea. Are gehiago: Estevanek konpaktazioaren fenomeno kinkageoerarekin uztartzen digu. Krisia, inondik ere, bere garapen kultural ezatik datorkio komunitate horri: garapen honek, izan ere, bere esku ez dauzkan aginte-mekanismoei darienez, ezer gutxi lortzen du bere arteko harremanak estutzearekin. Arazoa ez baita, eta gure artean behin-betirako argi eta garbi egon beharko lukeen iritzia da hau, giza-kompaktazioarena, kultura-ekoizpen eta ezarpenarena baizik. Eta kultur sareen garapena, gizarte-bitartekarien alorreko gertakaria denez, eta ez giza harreman psikologikoen subjektibitatean oinarrituriko zera, ahalegin gaitetzen hemen aholkatzen zaiguna lortzen. Hots: geure kultura garatzeko behar dugun ahal-

mena ("poder político") eskuratzen.

Gure auziaren izaera ez omen da ohiko kolonialismoaren ezpalekoa. Horigogorazten digute noiznahi eta nonnahi. Hatak, hirugarren munduko kolonizazio-prozesuan ezaugarri erabat josita ez bada go ere, mendebaldeko herri zapalduen bilakaerak badu kolonialismoaren antzirudirik. Estevak "barne-kolonialismoa" darabil exenplu hauetarako: bere espazioaren barnean irentsi eta suntsitu baititu Estatu modernoak hamaikatxo herri. Orobat, inperialismoaren harrobitik dator barne-kolonialismoaren joera: "En principio, estos fenómenos se manifiestan allí donde aparece el imperialismo, y con éste aparece impulsada la creación de los Estados modernos, políticamente unicentros y con desarrollos de colonialismo interno. Se trata de una situación constituida por relaciones desiguales entre el poder del Estado y algunas de las etnias o naciones que hayan resistido el ser asimiladas por aquél. Es una clase de pluralismo que Akzin ha caracterizado como pluralismo fundado en la desigualdad. O sea, corresponde a una situación en la cual una o varias etnias han sido agregadas a un concepto de nación que en sí conlleva no sólo las desigualdades inherentes a la división social del trabajo y a diferencias de *status* y de riqueza, a diferencias en definitiva de clase, sino que también desarrolla desigualdades en las capacidades específicas de control sobre el proceso de formación y promoción de formas culturales propias y de identidad".

Biziki gauza ohargarria da irakurri berri duguna: "pluralismo fundado en la desigualdad". Ideologia espainolista eta ez hain espainolista diren beste batzuren aldetik laster asko jasoko baitugu demokrazia santuaren salaketa: *pluralismo* adugula alegia baliorik garaiena. Eta balio de-

mokratiko horrek itxiko du behin baino gehiagotan euskaldun izan nahirik dabile-naren ahotsa. Alabaina, hona gezurraren mamia: bidegabekeria eta ezberdintasunean oinarrituriko *pluralismo* abesterik ez dugu gure artean darabilgun hau. Hizkuntz eta kultur *pluralismo* honen oinarrian Estatu-nazioaren interes-estrategia dago: bere esanetara baldin bagaude demokratak eta toleranteak izango gara (berak ezarritako *pluralismoa* onartzen baitugu); aldiz, *pluralismo* horren gezurra azaleratzen badugu, abertzale askoren aldetik ere gaitzetsiak izango gara. Estatuaren logika-indarra *egi* bihurtu da euskaldun eta euskotar askorentzat ere, tamalez.

Antropologia kulturean Bartzelonako Unibertsitatean katedratikoa den honek klasetasunaren eta etnikotasunaren arteko katramilak ere sakonki ikertzen ditu. Eta ez goi-klaseen jokamoldea soil-soilik, arestian aipatua izan den legez. Langile-klasearen betekizuna ere, orobat, aztergai du eskuarte dugun liburu honetan. Ez da, alajaina, ondoriorik gabeko auzia hauxe: nor ez da ibili gure artean (frankismo garaiko belaunaldian alegia) naziotasuna langile-estrategien mende ipini behar zela sinestuz? Hona zer dioten, ordea, gai honen inguruan: "Este es un modo de condicionar la realización cultural de las etnias. Por eso, aunque la propia clase trabajadora de la etnia dominante pueda ser sujeto de la explotación de clase de los grupos dirigentes del Estado, sin embargo, como etnia es parte del sistema de explotación interétnico, como cuando algunos partidos políticos que asumen también la unidad del Estado, sin percatarse de la función colonialista de éste en relación con sus naciones internas".

Estevanek dioenez alderdi politiko estatistek joera makurra dute etni-zapalkun-

tzaren jokuan jausteko. Zoritxarrez, Estatu-berdintasunaren izenean, ohartuki edo ohargabeki, ez dira alderdiak soilik errotzen. Are gehiago: sindikalismo abertzalea bera erori da tranpa-zepo horretan. Memoria piska bat duenak badaki ELAK nolajokatuzuen Euskal Eskola Publikoaren Legea zela eta ikastolen aurka. Orain-tsuago, sindikatu berberak ez du euskaltzaletasun handirik agertu Administrazio Publikoko hizkuntz eskakizunen auzian: Eusko Jaurlaritza bera auzitara eramateko prest agertu da baldin eta honek delako hizkuntz eskakizuna, luzamendu guztien ondotik, eskuratzen ez duten langileak lanpostuz lekualdatzen baditu. Langile-klasea ere ez da salbatzen nazio-menderakuntzaren sistema honetan partaide eta eragile den neurrian. Planteamendu honen harian ez dago dudarik etorkinen jokamoldea ere etni-nazioen arteko harreman honetan Estatu zapaltzailearen logikan barneratzen dela osoro, beti ere etnia zapalduaren hizkuntz eta kultur komunitatean integratzen ez den heinean.

Euskal Herriko gatazka-egoera euskaldunon arteko kontua omen da. Gure artean konpontzekoa. Gure artean sortua izan omen da; ez da egia, horrenbestez, Estatu arrotzaren eskuarmenez sorturiko gatazka denik. Hauxe da eguneroko erro-sarioa ideologia menperatzailearen pulpito-tik nazkagarriro mintzo zaizkigun *mass medien* mezua. Zeinek sortzen ditu, ordea, zinez eta benetan gatazka-egoera hauek? Erantzuna, jakin bagenekien, baina ez da gaizki etortzen honelako aditu-jakintsu baten ahotik entzutea: "Podríamos aquí ver que el precio de la dominación política del Estado en la sociedad pluricultural consiste en producir conflictos y contradicciones interétnicas, las cuales trata de resolver acudiendo al expediente del uniformismo cultural vía un proceso biculturalista. La respuesta en los

casos en que sus etnias diferentes conservan una fuerte energía cultural y una sólida consciencia de identidad histórica, consiste en desarrollar todos aquellos símbolos culturales que aseguran su continuidad, al mismo tiempo que actúa para absorber en su monoculturalismo a los grupos inmigrados".

Mass mediak aipatu ditugu, eta horiexen bidez hedatzen ditu Estatuak, beste inon baino areago, bere sinbolo kulturalen ba-

lio-edukiak: ideologia espainolista, erreferentzia kulturalak, balio eta mito historikonazionalak, etab.

Gai hauen ildotik mintzo zaigu Claudi Esteva Fabregat bere liburu sendo bezain mamitsuan. Ezinbesteko ideia-harrobia dela aitortuko nuke hizkuntz eta kultur arazoetan buru-belarri dabilen dozeinentzat. Ea bada, nagiak atera, euskalgintza-ren baitako ekileen artean harrera beroa izaten duen.

Joxe Manuel Odriozola
Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea